

# HIPI-en MINTEGIA

## AKTA

EGUNA	2020/10/08	SAIOAREN ZKIA.	1
-------	------------	----------------	---

### BERTARATU DIRA

Agirrezabal Zabalo, Jon (La Salle Legazpi); Alvarez Mugica, Miren (La Salle San Jose); Casado Casado, Mariasun (Gainzuri LHI); Daguerressar Saenz, Gorka (Murumendi HLHI); Eskisabel Larrañaga, Eneritz (Andramendi Ikastola); Frías Fuentes, Sulzana (Aita Iparragirre HLHI); Gonzalez Zabala, Vanessa (Urdaneta HLHI); Imaz Rezola, Miren Idoia (Beasain BHI); Mujika Alustiza, Josune (Alkartasuna Lizeoa); Perez Perez, Ana Isabel (Domingo Agirre HLHI); Salazar Apaolaza, Edurne (San Benito Ikastola)

### BERTARATU EZIN IZAN DIRENAK

Agirre Iturriotz, Itziar (Iparragirre BHI); Apalategi Urbiztondo, Pili (Beasain BHI); Arteaga García, Idoia (Jakintza Ikastola); Garmendia Lasa; Jaione (Beasain BHI); Izagirre Zabala, Aloña (Urkipe Eskola).

### AZTERGAIK

- Partaideen **aurkezpenak**

Ikasle etorri berriaren integrazioa errazteko eta gelakideen izenak ikasten laguntzeko [aurkezpen-jolasak](#) oso lagungarriak izaten dira. Horregatik, Mintegiari hasiera emateko, kideak elkar ezagutzeko aurkezpen jolas hau burutu dugu:

#### AURKEZPEN JOLASA

**Helburua:**

Mintegiko kideen izenak ikastea.

**Garapena:**

David hasi da bere izena eta gustuko duen animalari baten ezaugarri bat aipatzen ahotsak eta keinuak erabiliz (kasu honeta, txakurra: *guau, guau!*):

- *Ni David naiz eta [guau, guau!] gustatzen zaizkit.*

Taldeko edozein zertan ari den konturatzeko denean, kide horren izena eta animalia esango ditu: jarraian bere izena esan eta aukeratu duen animalia-aren ahotsa edo keinua irudikatuko du:

- *David txakurra da. Ni [xxx] naiz eta [xxx] gustatzen zaizkit.*

Partaide guztiak jarraitu dute erronda osoa bukatu arte.

- **Mintegia kokatu** Hezkuntza Sailaren lan ildoen barruan

Mintegiaren helburu nagusiak bi zutabe nagusietan oinarritzen dira:

Alde batetik, Ikastetxeetako Ikasturte Hasierako Ebazpenak ([Haur eta Lehen Hezkuntzakoa](#); [Bigarren Hezkuntzakoa](#)) aipatzen du berritzegune guztietan mintegiak jarriko direla abian hizkuntza indartzeko irakasleentzat ikasle guztien Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bermatze aldera.

Bestalde, gure erreferentziazko hezkuntza markoak eskola inklusiboa defendatzen du. Indarrean dagoen [Eskola inklusiboa garatzeko esparru planak](#) adierazten duen moduan, eskola eta hezkuntza sistema aldatu behar dira ikasle guztien premiak betetzeko.

**Hezkuntza Sailaren lehentasunezko ildoak:**

1. **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bermatzeko didaktika.**
2. Oinarrizko kompetentzia digitala irakasle guztiak garatzeko prestakuntza.
3. Programazioak curriculumaren funtsezko alderdietara egokitzea eta ebaluatzea.
4. Bizikasi hastapenaren esparruan, emozioen arloa lantzea.

**HIPi mintegiko Helburuak**

- Zonako HIPi-aren arteko komunikazioa sustatzea
- Elkar-laguntza sustatzea
- Ikasle jarraipena egiteko aholkuak ematea
- Hizkuntzaren jabeakentza prozesuaz hausnartzea eta alderdi teorikoak ezagutzea
- HIPi-aren erraztea, bitartekariak eskainiz eta denoi foro bat bideratuz

**Lehen saioaren helburuak**

- Mintegia Hezkuntza Sailaren **lan ildo**en barruan kokatzea
- Partaideak ezagutu
- Erabiliko ditugun plataformen aurkezpena
- Ikasle etorri berriak EH, Gipuzkoan eta gure zonaldean
- HIPi-aren sarea martxan jartzea
- Gure ikasle hizkuntzak (+ kultura) zertxobait ezagutu eta kontuan hartzea
- Dokumentuak aurkeztu: Harrera Plana, Hasierako ebaluazioa eta

Norberaren Jarduera Plana.

- Saioaren balorazioa eta hurrengo aurreikusi.

- **Mintegiko euskarri digitalak**

Mintegiareneko **edukiak hiru euskarri hauetan** aurkitu daitezke:

1. **Sites-a:** [labur.eus/goierrikohipiak](http://labur.eus/goierrikohipiak)

Webgune hau HIPI-en Mintegiaren atari nagusia izango da, bertatik baliabide

guztietara sarbide zuzena izango baita.

- Hipien Mintegia 19/20*: iazko bileren laburpenal kontsulta daitezke.
- Hipien Mintegia 20/21*: ikasturte honetako bileren akta eta powerpointak bilduko dira.
- Moodle ikastaroa*: [ikus azpian]
- Padlet-a*: [ikus azpian]

2. **Moodle ikastaroa**: HIPIen lanerako lagungarriak izan daitezkeen baliabide guztien biltegia da.

3. **“Goierriko Hipiak” Padlet-a**: Maiatzean jarri genuen martxan eta bere helburu nagusia mintegiko partaideek sortutako materialak partekatzea da. Baliabide hau erabiltzeko [erregistratu](#) beharra dago.

Baliabide hauek ezagueran sakontzeko honako **jarduera** hau burutu dugu:

1. Goierriko HIPIen Sites-a bisitatu: [labur.eus/goierrikohipiak](http://labur.eus/goierrikohipiak)
2. LHkoak: Sartu [Moodle plataformako ikastaroan](#) eta bilatu Inma Ortegaren “Hizkuntza Lantzeko Atazak”
3. DBHkoak: Sartu [“Goierriko Hipiak” Padlet](#)-ean.
4. Aztertu eskaintzan diren atazak eta baliabideak (10`)

- **Ikasle etorri berriak Gipuzkoan eta gure zonaldean**

a) Jarraian aztertuko diren Gipuzkoako datuak, honako liburutik atera dira:

[Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren mapa. Azterketa eta prosamenak.](#) Soziolingustika klusterra. 2018.


- 2017ko datuen arabera **Gipuzkoan biztanleriaren % 9,8 da atzerritarra**, hauetatik %3,1 nazionalitatea lortua du. Guztira 70.614 atzerritar jatorria dutenak (1998an soilik 5.000 biztanle inguru ziren). **Goierri % 9,1** parekoa.

- **Migrazioaren fenomenoa feminizatorantz.** Gainera zenbat eta migrazio-errealitatea denbora txikiagoa izan, hainbat eta feminizazioagoa. Hala ere jatorri-estatu batzuen kasutan gizonen proportzioa handiagoa da (adibidez Maroko, Errumania, Portugal, Pakistan, aljeria, Senegal..)
- **Adinaren arabera,** egitura gazteagoa dute oro har inmigratio-populazioa bertakoek baino. **18 urtetik beherako populazioa % 17 da, eta Goierrin % 22,4,** hau da **1.586 lagun** (0-5 urtekoak 652, eta 6-15koak 770 eta 16-17 koak 164).
- **Jatorria Gipuzkoan 2017. Gehienak Marokotik %11,** gero Errumania %7,1, ondoren Nikaragua % 6,5 eta Kolonbia % 6,1). **Goierrin** populazio handiena **nabarmen Errumaniako jatorria du.**
- **Hizkuntza aniztasuna.** Gaztelania ofiziala dutenak %41,6. Oso kontutan hartu behar ditugu: arabiera, tamazighta, errumaniera, portugesa, frantsesa, urduera, ukrainiera, txiniera (mandarin, kantonera), wolofera, fula, serer... **Gutxienez 130 hizkuntza hitz egiten dira Gipuzkoan.** Euren hizkuntzaren aitortza erakutsi behar dugu. Eusakrerekiko begirunea eta jakite asmoa indartzea komini da.
- **Gaztelania eta euskararen bizikidetzeta eta lankidetzeta sustatzea ezinbesteko eginkizuna da.** Kontuan izan behar da, horratik, pertsona immigranteak, gaztelaniaz hitz egiten dutenez hizkuntzarekiko beste egitekorik ez dutenaren hautematea izan dezakete, alegia, ez dutela migrazioko xede-herrialdeko hizkuntza desberdin bat ikasi beharrik (kontuan izanda, gainera, euskararen egoera den delakoa izanik, kasu **askotan beharrik ere ez dutela sentituko**). Gainera, etorkin gisa egoera subordinatu batean egotea ere egokitzen zaie. Baina, **komeni da argi adieraztea Gipuzkoako ezaugarri garrantzizkoa dela euskaraz hitz egitea, eta gizarte inklusiorako eta goranzko mugikortasunerako aparteko garrantzia duela euskarak.** Alegia, euskara eta inklusioaren artean badagoela harreman hanpatu beharrekoa. Horrela, euskarara hurbildu daitezen ahalegin berezia egin behar da euskara eta gaztelaniaren arteko bizikidetzeta eta lankidetzeta sustatzeko, eta euren seme-alaben kasuan euskaraz hitz egiten ikas dezaten.

**b) Gure zonaldeari** dagokionez, lehen saiaren aurretik galdetegi bat bidali gunien mintegian izan eman zutenei. Oraingoaz mintegiko hamar kideen datuak jaso ditugu eta hona hemen erantzun esanguratsuenak:


Guztira 75 ikasle etorri berri zenbatu ditugu. Horien ama-hizkuntzei dagokienez, ia erdia **gaztelania** da, laurden bat **arabiera**, eta hamarren bat **errumaniera**; geratzen den %15a hamar hizkuntzen artean banatuta dago:

Ama hizkuntza  
74 erantzun



Beste datu interesgarri bat eskola-mailan aurkitu daiteke. Izan ere, nahiko datu positiboa da, inkestako ikasleen %58a **eskola-maila nahiko ona** edo egokia baitauka:

Eskola-maila  
50 erantzun



- Goierriko **HIPIen sarea** martxan jartzen  
Aurreko inkesta ere saio honetako helburuetako bat betetzeko ere balio digu, hau da, mintegiko partaideen sarea eratzea. Azpiko taularen helburua da ama hizkuntza berdina duten ikasleen irakasleei zalantzak (eta ziurtasunak) partekatzeko aukera eskaintzea:

	<b>IKASTETXEA</b>	<b>IZEN DEITURAK</b>	<b>HIPI URT</b>	<b>IKASLEEN HIZKUNTZAK</b>	<b>IMEILA</b>	<b>TEL. ZKIA.</b>
1	<b>LA SALLE SAN JOSE</b>	<b>ALVAREZ, MIREN</b>	3	katalana, urduera, gaztelania, txinera,	mirenalvarez@lasallebeasain.eus	943880139
2	<b>GAINZURI LHI</b>	<b>CASADO, MARIASUN</b>	5+	gaztelania, arabiera/amazigh, arabier	mariasuncasado@gainzuri.eus	943721214
3	<b>AITA IPARRAGIRRE</b>	<b>FRÍAS, SULZANA</b>			sulzanafrias@aitaiparragirre.eus	943187151
4	<b>DOMINGO AGIRRE</b>	<b>PEREZ, ANA ISABEL</b>	0	arabiera, gaztelania	anaisabel@legazpiakoeskola.eus	943730068
5	<b>SAN BENITO IKASTOLA</b>	<b>SALAZAR, EDURNE</b>	0	arabiera	esalazar@sanbenito.ikastola.net	943880800
6	<b>IPARRAGIRRE BHI</b>	<b>AGIRRE, ITZIAR</b>	5+	gaztelania, fang, portugesa, arabiera	itziaragirre@jmiparragirre.eus	943899501
7	<b>URKIPE ESKOLA</b>	<b>IZAGIRRE, ALOÑA</b>	1	gaztelania,	alonaizagirre@urkipe.eus	943887704
8	<b>ALKARTASUNA LIZEOA</b>	<b>MUJIKA, JOSUNE</b>			mujika.josune@gmail.com	943882684
9	<b>MURUMENDI HLHI</b>	<b>DAGUERRESSAR, GORKA</b>		errumaniera	g.daguerressar@irakasle.eus	943880025
10	<b>LA SALLE LEGAZPI</b>	<b>AGIRREZABAL, JON</b>	0	arabiera, errumaniera, gaztelania, frantsesa, txinera	agirreza@lasalles.com	943721514
11	<b>JAKINTZA IKASTOLA</b>	<b>ARTEAGA, IDOIA</b>			iarteaga@jakintza.eus	943160540
12	<b>BEASAIN BHI</b>	<b>APALATEGI, PILI</b>			papalategi@beasainbhin.net	943899333
13	<b>BEASAIN BHI</b>	<b>IMAZ, IDOIA</b>	2	gaztelania, errumaniera, arabier	iimaz@beasainbhi.net	943899333
14	<b>BEASAIN BHI</b>	<b>GARMENDIA, JAIONE</b>			jgarmendia@beasainbhi.net	943899333

15	<b>URDANETA HLHI</b>	GONZALEZ, <b>VANESSA</b>			vanesagonzalez@ urdanetahi.org	943805310
16	<b>ANDRAMENDI IKAST.</b>	ESKISABEL, <b>ENERITZ</b>	2	amazigh, errumaniera	eeskisabel@beasai ngoikastola.eus	943889617

- **HIPIen betebeharrak**

HIPIa ikasle eotri berriei hizkuntza irakasten dien irakaslea da. Ikasle horientzat **erreferentea** izango da eta **zubi-lanak** egingo ditu **gela arruntarekin**.

*2016-2020 ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II Planean* zehazten da Hipi en lana, hiru ardatz hauetan banatua:

#### HIZKUNTZA IRAKASLE

- Hizkuntza-errefortzuaren programazioa egitea, betiere ikasleen beharretara egokituz.
- Ikasleak ezagutzea eta irakaskuntza antolatzea: Taldeetan banatzea. NOLA/ NOIZ
- Gela antolatzea.
- Material didaktikoak aztertu, antolatu eta prestatzea, ikuspegi egokia erabiliz.
- Saio baten egitura...
- Dagokion **hezkuntza-errefortzua ematea**

#### TUTOREAREKIN BATERA

- Ikasle etorri berrien harrera eta inklusioa erraztea, haien gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzea.
- Ikasleen aurrerapenak eta ikasketak ebaluatzen parte hartzea.
- Materialak eta edukiak egokitzea, zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegitik.

#### GAINONTZEKO IRAKASLEEKIN

- Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia sartzeko jarduerak diseinatzea.
- Hizkuntzak irakasteko jardueren plangintza egitea.
- Koordinatzeko prozesu bat ezartzea, Banakako Eskuartze Plana prestatu eta haren aplikazioaren jarraipena egiteko

Ardatz nagusia, noski, ikasleekin egin beharreko lana da. Hona hemen saioak egituratzeko [proposamen bat](#).

- **Hizkuntza ikasten**

Atal honetan aztertu nahi izan dugu ikaslearen ama-hizkuntzak eta kulturak duen garrantzia eskola-hizkuntza ikasteko orduan. Gai horretan murgiltzen hasteko [“Immersion”](#) bideoa ikusi dugu.

Bideoa ikusi ondoren *Breakout Rooms* aplikazioa erabiliz taldetxoetan ikusitakoaren inguruko hausnarketa bultzatu nahi izan dugu, baina arazo teknikoak medio, azkenean ezin izan dugu jarduera gauzatu.



### **Murgilketa-programak**

- Ikasleak etxeko hizkuntzan ez baizik eta bigarren hizkuntzan eskolatzen dituzten programak dira murgilketa-programak. Baina azpiratze-ereduetan ez bezala, **murgilketan ikaslearen etxeko hizkuntza babestu eta balioetsi egiten da, helburua ez baita ikasleak etxeko hizkuntza hori bazterrean uztea, baizik eta etxekoa zein eskolakoa, biak ikastea. Ikasgaiak bigarren hizkuntzan ematen dira, baina murgilketa-programa askotan etxeko hizkuntza ikasgai modura irakasten da, eta hala egiten ez den programen kasuetan, ziurtatu egiten da etxean etxeko hizkuntzaren garapena bermatzen dela (Genesee (1987), Bensonek (2009) aipatua).**
- Murgilketako **irakasleak elebidunak** dira eta, ondorioz, murgilketako ikaslea ez da giro arrotz batean sartzen. Curriculumari dagokionez, lehen hizkuntzaren curriculumari berbera izaten du murgilketak (Johnson eta Swain, 1997). **Gurasoen nahia eta erabakia ezinbesteko baldintza** dira haurrak etxekoa ez duten hizkuntzan eskolatzeko eta murgilketa bidez haurrek bigarren hizkuntzan egidako lorpenak modu oso positiboan baloratzen dira, ez bakarrik haurraren etxean (gurasoek pozik hartzen dute eurek ez dakiten hizkuntza bat seme-nalabek eskolaren bidez ikastea), baizik eta, oro har, gizarte osoan (Idiazabal, 2003).
- **1965ean Montrealeko Saint Lambert eskolan** etxetik ingelesdun ziren haurrak frantsesez eskolatzen hasi eta elebitasunaz gain eskola-arrakasta ere bermatzen zela ikusirik, mundu osoan zehar hedatu dira murgilketa-ereduak.
- Aditu gehienak bat datoz honako ideia honetan: **umeak bere lehen hizkuntza garatzen jarraitu behar du eta horretan irakaslearen jarrerak zerikusi handia du.** Alegia, lehen hizkuntzaren garapena eskolako hizkuntzen garapenean lagungarri izan daiteke. Irakasleak, gainera, jakinaren gainean egon behar du haur etorkin horiek noizbehinka euren ama hizkuntzan aritzeak ikasteko orduan lagundu egiten diela, ikaskuntza errazago egiten zaielako eta ez direlako intelektualki hainbeste nekatzen. (A. Barquín; U. Ruiz Bikandi, 2007: 47)



- **Dokumentuen aurkezpena**

Hezkuntza Sailak hiru dokumentu jarri ditu ikastetxeen eskura ikasle berrie harrera hobetzeko asmoz:

- ❑ [Harrera Plana](#)
- ❑ [Hasierako ebaluazioa](#)
- ❑ [Norbanako Jarduera Plana](#)

- **Hurrengo saioa**

Datorren saioan **Hasierako Ebaluazioaz** arituko gara. Hezkuntza Saileko dokumentutik abiatuta nola eta zertarako egin behar ikusiko dugu, gure zonaldeko bi kasu konkretutik abiatuta.

Hortik abiatuta, **Norbanako Jarduera Plana** dokumentua ere aztertuko dugu.

Horretaz gain, beste gai hauek ere landuko ditugu:

- ❑ A0 maila duten ikasleekin egin daitezkeen jarduerak.
- ❑ Sareko baliabideak: *Arasaac* eta *Quizlet*